

Inude eta Artzaiak izango dira gaur kaleetan barrena, Inauteriak badatozela iragartzeko

Urtero moduan, Hernaniko Urumea Ikastolak, Inauteriei sarrera emateko asmotan, Inude eta Artzainen konpartsa aterako du gaur eguerdiko 11:45etan, eta giro ederra jarriko dute Kaxkoan.

HERNANI INUDE ETA ARTZAIK

Urteroko zita moduan, eta datoren asterako prestatzeko, Urumea ikastolak, Inauterien iragarpen gisa, Inude eta Artzaiak konpartsa antolatu du, gaur eguerdirako. 11:45etan izango da konpartsa irteera.

Kaxkoko zenbait kale igaro ondoren, Gudarien Plazan ekitaldi nagusia egingo da. «Inudeak daramatzaten haurrekin txertoak eman ondoren, udal txeko agintariei aurkeztuko dizkiete, beren izenak erregistroan gera daitezen». Jarraian arin-arina dantzatu ostean, konpartsa Urumea Ikastolara itzuliko da.

27garren edizioa, aurtengoa

Aurten, 27garrenez aterako da Inude eta Artzaiak konpartsa. Bertan 160 umek hartuko dute parte, eta horietatik 48 dantzariak dira. Hauen aurretik garai bateko zenbait, pertsonai ikusi ahal izango dira, hala nola, globeroak, piruleteroak, barkile-roak, umezainak, alkatea, udal ordezkariak, sendagileak, erizainak, argazkilariak...

Dantzari eta pertsonaiekin batera, txarangako musikariek ere parte hartuko dute eta «50 bat ikasle danbor joleak ere ariko dira, erritmoa jartzen».

Gaurko ibilbidea honekoa



Inude eta Artzaiak, herriko plazan eskaini zuten ikuskizunean, aurreko urtean.

izango da: Urumea ikastolan hasiko da (Gay Mur eraikinean), Sandiusterri, Elkano Kalea, Gudarien Plaza, Andre Kale, Plaza Berri, Kale Nagusia, Zinkoenea,

Txirrita kalea Izpizuaraino, Izpizua kalea, Urbieta kalea, Kale Nagusia, Gudarien plaza eta azkenik, Elkano kaletik Urumea Ikastolaraino. **K**

Adarraga Memoriala ez ezik, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa ere jokoan da

Gaur goizeko 11:00etan emango zaio hasiera, 55garren edizioa izango den Adarraga Memorialari. Bost lasterketaz osatutako eguna izango da gaurkoa, Atletismo pistan.

HERNANI ADARRAGA MEMORIALA

Denboraldiko egun berezietakoa izango dute gaurkoa Hernaniko atleta gaztetxoek. 55garren edizioa izango da, aurtengoa; eta goizeko 11:00etan hasiko dira lasterketak.

Mutil infantilen txanda izango da aurrena, 11:00etan puntuan; eta 2.736 metroko ibilbidea osatu beharko dute haiek. Segidan aterako dira neska infantilak, 11:20etan, pixka bat laburragoa izango den ibilbidea

egiteko: 2.122 metro. Distantzia hori bera osatu beharko dute mutil alebinek, 11:35etan abiatuta; eta 1.508 metro egingo dituzte neska alebinek, 11:50etan hasita. Benjamin mailako korrikalarien lasterketak emango dio bukaera goizari. 12:00etan abiatuta, 670 metroko ibilbidea izango dute aurretik. Gipuzkoako Txapelketa, jokoan. Beraz bertaratzeko deia luzatu dute.

Adarraga Memoriala ez ezik, jokoan izango da gaurkoan, Hernanin, Gipuzkoako Eskolarteko



Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa ere jokatuko da gaurkoan.

Txapelketa ere, kros modalitatean, alebin eta infantiletan.

Gaur bertan jokatuko da, Ortuellan (Bizkaia), Euskadiko

Kros Txapelketa, master mailatan: 35, 40, 45, 50 eta 55 urtetik gorakoetan, hain justu. Goizeko 11:00etan hasiko da. **K**

Posta bidezko botua emateko aukera

HERNANI PSOE-EE

Hernaniko PSOE-EEK, posta bidez botua emateko aukera jarri du martxan. Apirilaren 5ean, hauteskundeak izango dira eta «askok ezin dute hauteskunde mahaietara joan bozkatzera». Horretarako, Liaziaga Auzoko PSOE-EEKo egoitzan bozka emateko aukera dago, astelehene ostiralera, goizeko 11:30etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara bitartean, martxoaren 26ra arte egongo da aukera hau. Informazio gehiagorako deitu 943 55 04 29.

Euskaraz jarduteko tartea, bihar

ASTIGARRAGA GURASOLAGUN

Bihar, arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara bitartean, gurasolagun antolatu da, euskaraz mintzatzeko elkargune irekia. Doakoa da, eta antolatzaileek adierazi dute berdin duela zein den zure euskera maila.

Guraso ohien bazkarirako sarrerak

HERNANI LANGILEREN 50GARREN URTEURRENA

Maiatzaren 16rako, langileko guraso eta ikasle ohien bazkaria antolatu da Floridan. Igande eta ostegunetan izango da aukera erosteko. Gaur eta datorren igandean Etxeberriko Auzokiden, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Hilaren 20 eta 27an, 17:00etatik 20:00etara, Biterin.

Etzi, bi batzorde Udalean

ASTIGARRAGA UDALA

Etzi, bi batzordetarako deia luzatu du Udalak. Lehena, Ogasuna eta Ondareari buruzkoa izango da goizeko 10:30etan, eta eguerdiko 13:15etan, Obra eta Zerbitzuen batzordea.

Adarraga
HERNANI (Gipuzkoa)

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

GNOMOS

PAPER DENDA

Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

AITAN-ETXE TABERNA

Larramendi, 15
943 55 00 46

KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA

Bidali zure CV-a, otsailak 29ra arte:

kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkartea
Larramendi 11 behea
20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- / Euskera ondo menperatzea, hitzez zein idatziz.
- / Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- / Iniziatiba eta enpatia.
- / Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

BALORATUKO DA:

- / Urumea bailara ezagutzea.
- / Doberako bazkide izatea.
- / Tokiko hedabideak ezagutzea.

ESKAINIKO ZAI:

- / Aktualitatearen jarraipena egitea.
- / Kazetari lanetan esperientzia.
- / Maketatze, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.
- / Sare sozialak menperatzea.

ESKAINIKO ZAI:

- / Kontratu: amatasun bajari dagokiona.
- / Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

Kronika **DOBERA**

GAUR Gaur, haizea zakartu egingo da, Hego-mendebaldetik joko du, indartsua izango da. Ondorioz tenperaturak altuak izango dira. Zeruan erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak egongo dira. **Min.11° / Max.22°**

BIHAR Bat-bateko aldaketa nabaritu da bihar. Izan ere, Fronte hotz batek eragingo digu, mendebaldetik ekialdera zeharkatuko du gure lurraldea eta euria egingo du. **Min.10° / Max.12°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



Santander nagusitu zen atzo, etxeko taldearen aurka

Atzo, Santanderreko Independiente taldea izan zuten aurkari Landaren, eta trikoloreek ez zuten hau garaitzerik lortu. 07-42 emaitzarekin amaitu zen partidua.

HERNANI ERRUGBIA

Lehenengo minutuetan, Santanderreko Independiente taldea Hernaniren aurretik jarri zen, lehen ensaioarekin. Partidua 07-42 ko emaitzarekin amaitu zuten, Hernanik porrota jasota.

Hala ere, oraindik bi partidua garrantzitsu izango ditu Hernanik, hurrengo bi asteburuetan: Santboiana hartuko du Landaren, eta Burgosen zelaiari ariko da. Eta horren ondoren, bi asteburuko etena izango dute berriro, martxoan.

Bost partidu faltan

Bost partidu falta zaizkie trikoloreei: Alcobendas eta Bathco hartuko dituzte Landaren, eta VRAC, EL Salvador eta Bartzeloz.

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, deialdeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.



Xabat Erroizenea, atzoko partiduan. Argazkia: Iñigo Arizkorreta.

naren zelaietara egingo dute bisita. Beraz, garaipenak gaurtik pilatzen hasia, ezinbestekoa.

Hemedik aurrera indarrak hartu eta bost partidu hauetan konzentratzea besterik ez zaio

gelditzen Hernaniri. Martxoko etena egin aurretik, bi partidu gelditzen dira eta Hernaniko gazteak dena emateko prest daude, Landareko zaleekin batera. **K**

Joxe Mari Auzmendi joan zaigu!

Joxe Mari esan orduko, lehenbizi, bere aurpegi irribarretsua etortzen zaigu burura. Bizi garen gizarte honetan, nabarmentzen diren estatik batzuk, beti gora egin nahian sumatzen ditugu, beren lanbidean, beren proiektu sozialean; Joxe Mari bere ametsengatik eta bere ilusioengatik nabarmentzen zen, bere idealismo eta umore onagatik.

Legazpin ere ez zen geldirik egon; zinegotzi izana, eskolak ematen ere aritu zen. Kimika ikasi eta Patrizio Etxeberria enpresan aritu zen lanean. Guk, duela urte batzuk ezagutu genuen, hark egindako deira, hamar bat lagun elkartu ginenean Hernanin, euskarazko kulturaren adierazpen ezberdinak bultzatzeko eta jendaurrean erakusteko lekuren baten bila eta proiektua mamitu nahian. Baikortasuna transmititzen eta etsipenezko uneetan adorea al-

txatzen aparta zen Joxe Mari.

Hiru bat urtez aritu ginen ideia eta ikuspegiak partekatzen eta herriko zeinbat eragilerekin, hainbat bilera egin genituen proiektua nola ikusten zuten jakiteko. Ez genuen 'Kulturuola' izenez bataiatu genuen egitasmoa aurrera eramaterik izan, baina ez gara damutu orduan egindako lanarekin. Taldearen arima Joxe Mari izan zen, 'Hik hasi'-n, hogeita bost urtez izan den bezala.

Irakaskuntza eta euskara zituena lagun hartu-hartuak, bihotzeko bi maitasun sozial ezin baztertzekoak, eta halaxe hilda, lanean, maite zituen alde eta maite zutenengandik hurbil. Euskarazko kulturak langile xume bezain leiala galdu du, eta ezagutu dugunok beti gordeko dugu geure barrenik barrenean leku berezi bat, bizi-eredu ederra erakutsi digunarentzat, bere irribarre betierekoarekin

batean. Adiorik ez, Joxe Mari!

Bizitzan zehar bihotzez maitatu duzu euskara, euskaldun finek arduraz egin ohi duten gisara, euskal kulturari berriz eman diozun bultzada, etengabe lan eginez hamarkadaz hamarkada, hezkuntzan nor ez du hemen sentitu zure taupada, lasai Joxe Mari, zeren pentsa bai daiteke jada, gure gaiok salbatuko ditugula behar bada, gu zure koherentziatzat saiatzen baldin bagara.

Pako Sudupe, Ixiar Egiuren, Amagoia Etxeberria, Laida Lizarribar, Juanjo Uria, Aritz Usandizaga, Jokin Nazabal, Nerea Uria, Pello Egaña, Oier Agirresarobe.

Inauteriak iragartzeko kontzertua, gaurkoan

Inauteriak iragartzeko asmotan, gaur eguerdiko 13:15etan, Hernaniko Musika Bandak kontzertua eskainiko du.

HERNANI INAUTERIETAKO KONZERTUA

Gertu dira Inauteriak, eta urtero moduan, data hau iragartzeko, Hernaniko Musika Bandak kontzertua eskaintzen du. Eta gaurkoa eguerdiko 13:15etan izango

da, Plazan.

Betiko errepertorioak

Hernaniko Musika Bandak, urteak daramatza Inauterietako iragarpen kontzertua egiten, eta aurten ez da gutxiago izango. «Gure herrian aski ezagunak diren, Tolosako Inauterietako doinu osatuta dago errepertorioa. Haien artean, Diana, Galtzaundi, Pastelero, Isabelita, Praskua-rena...»

Hamaika abesti entzuteko aukera izango da beraz gaurkoan, eguerdiko 13:15etan, plazako arkupera bertaratzeko deia luzatu dute. **K**

Sentsibilizazio kanpaina, gaur arte

Hilaren 10 ean, Astigarragako Udalak sentsibilizazio kanpaina bat jarri zuen martxan, eta gaur da azken eguna.

ASTIGARRAGA HONDAKINAK BEREIZTU

Astigarragako Udalak adierazi du, herritar askok ondo eta modu egokian sailkatzen dituela hondakinak, baina «asko dira hondakinak edukiontzien inguruan uzten dituztenak, naha-

sian eta sailkatu gabe». Horren ondorioz, hilaren 10ean, sentsibilizazio kanpaina bat jarri zen martxan, «arazoa erakutsi eta utzikeria horri aurre egiteko», Joseba Barandiaran eta Kontxa Etxeberria plazan, edukiontzietan oker utzitako hondakin eta poltsak pilatu zituzten.

Sentsibilizazio ekintza honenkin, «edukiontzi inguruetako arazoa plazara ekarri nahi izan dugu, denok arazoa jabetzeko». Ondoren, poltsa eta hondakin horiek guztiak pisatu egingo dira, «hobetzeko zer dagoen ikusteko». **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak **HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingeleza eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

LOGIKALINE enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingeleza eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Martxan dagoen okindegia alokagai. Interesatuak deitu: 644 319 054

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**